

Aretxagazeta

ROTARREKIN BAT
LANEAN

Helburua: 1.000.000 euro



Bonolaguntza

Xiberua
garatzen egitasmoa

Aretxabaletako Xiberua garatzen plataforma

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Asteburuan irekiko da
Gaztetxea ofizialki /8

ELKARRIZKETA
Almen Kirol Elkarteak
25 urte /9

LEINTZ GATZAGA
GUREL udalekuak
prestatzen /10

Xiberua Garatzen

egitasmoa aurrera doa gurean

Apirilean aurkeztu zuen herriko talde batek Xiberua Garatzen egitasmoa. Orduetik ia hilabete bi pasatu dira, eta herritarrak hasi dira dirua ematen. Hala ere, hasieran jarritako erronkatik oraindik urruti daude -7.500 euro-, eta aretxabaletar guztiak animatu gura dituzte laguntzen jarrai dezaten.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 15
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 16
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK
SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

ARETXABALETAKO AKORDEOI ORKESTRAREN 10. URTEURRENA
Herriko Akordeoi Orkestraren urteurrena ospatzeko, bihar, zapatua, Lasarte-Oriako Zero Sette Akordeoi Orkestrak kontzertua eskainiko du. Ekitaldia Mitarte kalean izango da, 19:30etik aurrera.

EPEH PLATAFORMAREN BATZARRA
Astlehenean, hilaren 17an, EPEH plataformak batzarra egingo du, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

TXOTXONGILO EMANALDIA LIBURUTEGIAN
Eguenean, hilaren 20an, Bihar antzerki taldeak *Kli! kla! birzikla!* izeneko txotxongilo emanaldia egingo du Udal Liburutegian, 18:00etan. Ikuskizuna hiru eta zortzi urte arteko umeendako da. Udal Liburutegiak urtero egiten du horrelako ekitaldiren bat umeak liburutegira hurrera daitezen.

UDAKO IKASTAROK
Zainduz osasun eta *fitness* zentroak hiru ikastaro antolatu ditu uztailean: Mugimendu Konzientearen gainekoa, Emakumeendako Defentsa Pertsonalekoa eta *shiatsu*-koa, hain zuzen ere. Informazio gehiago, 943 71 27 92 telefonoan.

LORAMENDIRENAGENDA

BADIHARDUGU ELKARTEKO BAZKIDE
Badihardugu elkarteak bazkideak behar ditu. Interesatuok, jo Loramendi Euskara Elkartera.

PIRRITX ETA PORROTX
Hilaren 18an, martitzenean, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna izango da udaletxe zaharrean, 17:30ean. Ludotekako umeendako bakarrik izango da.

ORAINDELA 10 URTE ARETXABALETAN

Galartzako dorretxeak badu interes historikoa


Orain dela 10 urte Aretxabaletako Udalak egindako tramiteei esker, Eusko Jaurlaritzak Galartzako dorretxea monumentu historiko izendatu zuen. Hori kontuan hartuta, Galartzako dorretxea Euskal Kultura Ondareen inbentarioan sartzeko erabakia hartu zuen Eusko Jaurlaritzak.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eskolantia"

Ikaslea (adinekoek, eta ironiaz, inoiz esana).
-An, badatoz gure eskolantiak pe.
-Nere denporan enintzuan oso eskolante ona izan.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Txomin Illarramendi
8an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ihintz Urkia
14an, 3 urte. Zorionak, Leireren, Oihaneren eta Malenen partetik!




ARETXABALETA
Mainer Elortza
14an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Martin Berrizbeitia
17an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Tamara Amaral
20an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Josu Irure
20an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Maite Galdos
23an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

- * ESTUDIOAK
- * EZKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK

Beti karretean edo albuma dohanik !!

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak


MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxe: 943 71 50 05



ATREBENTZIAEZPADA/ Musikie pirateetien kontrako egune izen da astien. Ze pentsetan jatzu?



ANA ISABEL ARANBURU
Langillie



JOSE MANUEL GARCÍA
Langillie




LOREA ITURRICASTILLO
Langillie



JOSE MIGUEL ARANBURU
Langillie



YOLANDA DURÁN
Langillie



AITOR MERINO
Langillie

Ez dot disko konpakto askorik erosten, baiñe erostekotan, dendetan erosten ditud. Garestixek die, bai, baiñe ez jat pentsetan zuzena danik pirateetie, artistei kalte egitten dutzegu-eta.

Nik disko konpaktuek, jeneralien, erosi egitten ditud, baiñe nahiko garestixek diela uste dot. Grabau be egin izen dot, eta holakue- tan ez dot begireketan tal- die hamengue dan edo ez.

Ez dot disko konpakto askorik erosten; edozelan be, dendetan erosten ditud. Ez litzake pirateau biherko, baiñe hain garestixek die... Internetetik be hartu izen dot, eta grabau be bai.

Piraterixiek musikuei eta diskoetxiei kalte egitten dutzela uste dot, eta normala da horren kontra egotie. Egixe da konpaktuek garestixek diela, eta neu be jau- si izen naz tentaziñuen.

Batetik, ondo daguela pen- tsetan jat, konpaktuek oso garestixek dielako; baiñe bestetik, txarto dago, artis- tei kalte egitten dutzelako piraterixiek. Nik neuk beti dendetan erosi izen ditud.

Erosi be egitten ditud kon- paktuek, baiñe grabau be bai. Ez dust inporta pirate- rixien kontrako egune egi- ttiek, gure badaue egin dai xiela, nirekin ez dauko-eta iñolako zerikusirik.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ANTOLAKETA BIKAINA Domekan egin zuten Murruki- xo MEk antolatutako II. Mendi Martxa, eta zorionak eman behar zaizkio Mendizale Elkarteari: ibilbide osoa behar den moduan adie- razita, Gurutze Gorriko kideak han eta hemen, hamarretakoa egi- teko gune bi eta bietan jatekoa eta edatekoa gura beste... Antolaketa horrekin, hurrengoan ere gustura etorriko dira mendizaleak. /M.A.

ETABARRUAN...

ELKARRIZKETA /4	ASTEAN BEHIN /5	HURRETIK /7
Iker Akizu	Larrinoko bidea	Manolo Hernández
Xiberoa Garatzen egitasmoko kideak kanpaina Aretxabaletan zelan ari diren egiten esan digu.	Larrino auzora doan errepidea konpontzen hasiko da laster Gipuzkoako Foru Aldundia.	Makai lorezaintza enpresako kidea da. Inoiz baino lan handiagoa izaten dute lorezainek udaberrian.

ASTEKO DATUA

356

MENDIZALE BATU ZIREN DOMEKAKO MENDI MARTXAN

Murrukixo MEk antolatutako II. Mendi Martxa 356 mendizale batu ziren. Gehienak Aretxaba- letakoak eta inguruetak herrie- takoak izan ziren, baina Bizkai- tik ere etorri ziren baten batzuk.

BESTEKE SANA

“ Domotikaz baino, etxeko automatiza- zioaz hitz egingo nuke, ez direlako sukaldeko elektro- tresnak bakarrik kontuan hartzen. Izan ere, telebistak, HIFI eki- poak, satellite bidezko seinaleak, ordene- doreak eta Internetek ezinbesteko funtzioa betetzen dute arlo honetan. Seguritatea eta etxeko aparailu elektroniko guztien kontrola izatea lortu nahi da, nahiz eta etxetik kanpo egon. Esate baterako, posible izango da lanetik garbigailua martxan jartzea edo bideoa programatzea. Etxe batzuetan dagoeneko badira, baina gutxitan, uste dut oraindik urte dezente beharko direla etxe guztietan horrelako gailuak ezartzeko, oraindik erabiltzaileok ez baitugu beharrezkotzat jotzen.

NATI HERRASTI
‘Tu lankide’/02-05-30

HERRITARREN BERBAK/ Arantxa Jaka



Non dago legea?

Azkenaldi honetan lege ugari eta ezberdinak datozkigu eskuartera. Badirudi, politikoen ustez, gaitz askoren erremedioa artikulu zenbaki eta erabakie- tan dagoela; eta ez dut uste gau- za bera aldarrikatzen duenik gizarteak. Lege bat hartzeaga- tik hezkuntzarena jasoko dut, honi bu- rurz gehiago irakur- tzea tokatu zaidala- ko nire lanarenga- tik. Ez noa nire adostasuna edota adostasun eza ager- tzeraz, sakonagorago jo nahi nuke. Nire galdera hauze da, horrelako lege bat egiten denean nor daukagu geure buruan? Zein da gure le- gearen ardatza? Ez dakit gure haurrak eta gazteak izan beha- rrean ez ote diren gure ideolo- giak, ekonomi sistema, lehia- kortasuna... Hona beste galde- ra bat: zein da hezkuntzaren helburua? Ez dago argi. Zati- ke- ta gehiegi nabaritzen da fami- lia, gizarte eta eskolaren arte- an. Bakoitza bere aldetik dabil, eta ez dakit bakoitzak behar den adina egiten dugun haustu-

ra gero eta txikiagoa izan da- din. Ez dugu asmatzen, zein den bide egokiena. Baloreen mundua gero eta gehiago alda- rrikatzen, azpimarratzen da; eta, aldi berean, beste eredu ba- tzuk bultzatzen ditugu komuni- kabideen eskutik, bereziki.

Uste dut egoera honetan, eta pluralismoa onartu- ta, erakundeok inda- rrak batu behar di- tugula gazteei onena eskaintzeko, bizitza zentzuz eraikitzen erakusteko, beraien garapenaren lagun- tzaile izateko... Hau- xe izango litzateke hezkuntzaren lege onena. Ez daukat

formularik horretarako, aitor- tzen dut; baina, ausartzen naiz esatera lehenengo pausoa alderdikeri guztiak baztertzea dela; ez da erraza, baina ezi- nezkoa ere ez borondate onak garmatzanean eta egiarekin gabiltzanean. Gure jarrerak aldatzen saiatzen ez bagara, bakoitzak zerbaiti uko egiten ez badio, nekez irabaziko dugu denok. Jokoan asko daukagu: pertsonak heztea eta, ondorioz, gizarte eraikitzen laguntzea.

“Zein da hezkun- tzaren helburua? Ez dago argi. Zatiketa gehiegi nabaritzen da familia, gizarte eta eskolaren artean”



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala

ELKARRIZKETA

IKER AKIZU/XIBEROA GARATZEN EGITASMOKO KIDEA

*“Aretxabaletar guztiak anima daitezela,
Zuberoak oraintxe behar gaitu-eta”*

MIRARI ALTUBE

Apirilaren bukaeran aurkeztu zuen herriko talde batek Xiberoa Garatzen egitasmoa. Orditik hona, geratu barik dabilta lanean aretxabaletarren artean ahal den diru gehien batu eta zuberotarrei bidaltzeko.

Bukatu da Zuberoaren aldeko kanpaina?

Kanpaina, berez, Udalbiltzak jarri zuen abian eta maiatzaren 31n bukatu zen. Gu, ordea, oso berandu mugitu ginen eta herrian ere oso berandu aurkeztu genuen Zuberoako egitasmoa; hortaz, guk ez dugu oraindik kanpaina itxi.

Zelan doa dirua batzeko kanpaina?


Ondo. Aretxabaletarrak, poliki, baina hasi dira mugitzen. Etxetako atarteetan Zuberoari laguntzeko zein kontu-korronteetan sartu behar den dirua jarri genuenetik jendea hasi da dirua sartzen. Ekarpent handiak ere egin dituzte: herriko Euskadiko Kutxak, esaterako, 250 euroko ekarpena egin du eta beste partikular batzuek ere diru dezente eman dute.

Orain arte, zenbat diru batu duzue herrian?

250 euroko lau ekarpen bidali ditugu dagoeneko, kontu-korronteetatik batutako dirua da hori. Herriko koadrilei ere banatu genien proiektuaren berri ematen zuen txostena, baina oraindik ez gara dirua batzen hasi. Hemenetik ere beste bi edo hiru ekarpen lortzea espero dugu.

Udalbiltzak Aretxabaletari zenbat diru batu behar zen jarri zion, ez?

Bai, Udalbiltzak herri guztiei jarri zien gutxi gorabeherako diru kopurua. Aretxabaletan 250 euroko 30 ekarpen jaso beharko liriteke. Kopuru handia da eta ez dut uste helduko garenik; edozein ere, ahalegintxo egin barik ez gara geratuko.



AMAGOIA LASAGABASTER

“250 euroko lau ekarpen bidali ditugu dagoeneko; kontu-korronteetatik batutako dirua da”

Herritarrak animatu beharko dituzue...

Jakina. Bai Euskadiko Kutxan bai Gipuzkoako Kutxan kontu-korronteak zabalik daude eta norberak gura beste diru eman dezake. Orain, berriz, diru asko ematerik ez duenarendako euro bateko zozketa-txartelak atera

“Gure herrian 250 euroko 30 ekarpen jaso beharko liriteke, baina ez dut uste lortuko dugunik”

ditugu; hortaz, anima dadila jendea, Zuberoak behar gaitu-eta.

Diruaz gain, beste era bateko laguntzarik behar dute?
Seguru asko beharko dute, baina guk, momentuz, ez dugu aurreikusit. Zuberotarrekin hartu-emanak izan nahi genituzke, baina aurrerago ikusiko dugu.

“Zuberotarrekin hartu-emanak izan nahi genituzke, baina aurrerago ikusiko da”

Aretxabaletarrendako Zuberoa nahiko ezezaguna da...

Bai, egia da. Hala ere, kanpaina aurkeztu genuenean, izugarrizko jendetza hurreratu zen Murruxoko egoitzara, eta hori eskertzekoa da. Beharbada, gogaitu egin genituen herritarrak, eta horregatik etorri ziren.



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Kirolari eta bisitariak

Kirolariak ez dira falta gure herrian. Aurreko aste bukaera izan zen horren seinale. Zapatuan hiru aretxabaletarrek hartu zuten parte triatloian: **Oier Etxebarria, Josu Izagirre eta Asier Barrainkuak**. Igeri, bizikletan eta korrika, proba gogorra benetan. Domekakoa ere ez zen gutxiagorako izan. Kanpoko eta etxeko, gazte zein nagusi denetik izan zen mendi martxan. Antolakuntza, bikaina; jatekoa eta edatekoa gura beste, eta eguraldiak ere lagundu zuen. Hainbat sari zozketatu zituzten, gainera, baina denak eroan zituzten kanpora: Oreretara, Oñatira, Beasainera eta Eskoriatzara. Herritarrok ez genuen zortetik izan.

Batzuek kirola egiten zuten bitartean meza eman zuten beste batzuek. ETBn **Tomas Madinabeitiak** Legazpitik zuzendutako meza entzun ahal izan genuen. Datorren domekan ere berriz izango dugu Tomas pantailaren beste aldean. Beste elizgizon bat ere ez dabil urruti. Urruti bizi den arren, orain gure artean da **Inazio Galdos**. Indiatik etorri berri da gure artera egun batzuk pasatzera. Zaila izango da kalean ikustea hara eta hona dabil-eta, bata eta bestea bisitatzen. Ongi etorri Inazio gure artera. Ia kalean tril egiten dugun, eta elkarren berri izaten dugun.

Zubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

**PIENSO
SUNZUE S.A.**

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

GUREA

*taberna
jatetxea*

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

ERREPIDEKO LANAK / Auzotarrak gogaituta daude zuloz betetako errepidearekin

Laster hasiko dira Larrinora doan bidea konpontzen

MIRARI ALTUBE

Gipuzkoako Foru Aldundia Larrinora doan bidea konpontzen hastekotan ei dabil. Pozik hartuko dute auzotarrek berria, benetan gaizki dago-eta. Oraingoz lanak egokitzeko baldintzak kaleratu ditu GAOn eta enpresa eraikitzailea hartu bezain laster hasiko dira lanean.

Larrino auzoak hirurogei bat biztanle ditu. Egunean Aretxabaletara, gutxienez, joan-etorri bat egitea tokatzen zaie askori, eta ez da batere gozoa automobila hartu eta zuloz zulo pasatu beharra izatea.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARENA

Larrino auzora doan bidea, GI-4132, negargarri dago. Hasiera baten zuloak izan zirenak orain izugarritzko hondoratzeak dira. Aretxabaletako Udalak behin baino gehiagotan jaso ditu auzotarren kezak, baina Gipuzkoako Foru Aldundiarena izanik, ez zeukan ezer egiterik. Anjel Bergaretxe alkateak batzar bat baino gehiago egin zituen iaz Foru Aldundiko Errepide Saileko arduradunarekin, eta Diputazioa errepidea konpontzekotan geratu zen. Konpondu ostean, ordea, Aretxabaletako Udalaren eskuetara pasatzea hitzartu zuten.

HIRU HILABETEKO LANAK

Auzotarrak pazientzia ere galten hasita daude dagoeneko. Baina badirudi laster hasiko dituztela errepidea konpontzeko lanak.



ARTXIBOA


Errepidean ezin dira zuloak saihestu, nahitaez sartu beharra dago pasatzeko.

Diputazioak lanak egokitzeko baldintzak kaleratu zituen GAOn maiatzaren hasieran, eta lanak esleitu bezain laster hasiko dira errepidea konpontzen. 187 mila euroko aurrekontua ezarri diete lanei, eta Diputazioaren ustez, hiru hilabete baino gehiago ez

lituzkete beharko bukatzeko.

Udalak uste zuen ekainean bertan hasiko zituztela lanak, baina seguru asko, oraindik apur bat itxaron beharko dugu. Ea udazken ingururako errepide berritua daukaten larrinoarrek eta aretxabaletar guztiok.

TXUTXUMUTXUA



Kurtzebarri Eskolako Egunean, jolas ugari

Zapatuan ospatu zuten Kurtzebarri Eskolako Eguna. Eguraldiak ez zien batere lagundu, baina giro polita sortu zen Iturrigorri frontoian. Irakasle, ikasle eta gurasoek ez zuten asperetzeko aukerarik izan: goizean, mendi ibilalditxoak eta jokoak izan ziren ume, gazte eta gurasoendako; 12:00ak aldera, luncha, eta eguerdian, bazkaria. Bapo bazkaldu ostean, euskal jolasek hartu zuten txanda: aizkoran, trontzan, txalaparta jotzen... denetik egin zuten; eta bukatzeko, dantzaldia. /M.A.

LABUR

Andramaixak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa zabalik dagoeneko

Aurtengo Andramaixak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa abian jarri du dagoeneko Kultura Sailak. Edozein aretxabaletarrek har dezake parte lehiaketan. *Andramaixak 2002 Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaletan* jarri beharko du, eta 50x70 zentimetroko neurria izan beharko du. Kultura etxera edo udaletxera eroan behar da ekainaren 23a baino lehen, eta 270 euroko saria nori egokitu zaion uztailearen 11n jakinaraziko dute. Kultura Sailak egoki ikusten badu, erakusketa egingo du kartel guztiakin.

Ezkutu
TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Martini
Bere bezeroen zerbizura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

LEIBAR
arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

AITOR URIBARREN-JOSEBA AKIZU/ALEBIN MAILAKO PILOTARIAK

"Pilotan baino ez dugu jokutzen, eta pilotari onak izan nahi genuke"

MIRARI ALTUBE

Jokatu berri den Debagoieneko Alebinen Pilota Txapelketako txapeldunak dira. 11 urte baino ez dituzte, baina pilotari onak izatea dute amets. Indartsu datoz, gainera, eta euren izenak gogoan hartu beharko ditugu.

Noiztik zabiltzate pilotan?

Sei urte genituenean hasi ginen biok.

Nor da atzelaria eta nor aurrelaria?

J: Ni naiz atzelaria.

A: Ni, normalean, aurrean ibiltzen naiz, baina Joseba ez badago ondo, aldatu ere egin izan gara.

Beti osatzen duzue bikotea?

A: Ez, azken hiru txapelketetan bakarrik jokatu dugu batera.

J: Zaramagako Txapelketarako elkartu ginen lehenengo aldiz, eta txapeldunorde izan ginen. Gero, Debagoieneko Alebinen Txapelketan txapeldunak izan gara, eta orain, Arrasateko San Juanetako Torneoan gabilta.

A: Bueno, dagoeneko, kanporatu gaituzte. Amurrioko eta Azkoitiko aurkariak izan ditugu eta partidu biak galdu ditugu.



AITOR URIBARREN

"Zaramagako Txapelketarako elkartu ginen lehenengo aldiz, eta txapeldunorde izan ginen"

Zenbat ordu entrenatzen dituzue astean?

Astelehenetan eta eguaztentean joaten gara frontoira, eta ordu eta erdi inguru egoten gara. Hortaz, astean hiru bat ordu.

Herri Arteko Txapelketan jokatzeko gustatuko litzaizueke?

Bai, baina oraindik gazteak gara, itxaron egin beharko dugu.

Txapelketa aurretik elikadura zaintzen duzue?

J: Bueno... amak makarroiak jartzen dizkit batzuetan.

A: Nik pasta asko jaten dut, izugarri gustatzen zait-eta.

Zein pilotari duzue gustuko?

A: Olaizola I.a.

J: Titin, Elkoro eta Retegi.

Eta Mikel Goñi?

J: Bai, baina burutik ez dagoela oso ondo esaten dute.

Aretxabaletan zaletasun handia dago?

J: Batzuetan jende gehiago egoten da; beste batzuetan gutxiago.

A: Alebinen txapelketan Debagoieneko pilotariak parte hartu zuten eta jende asko etorri zen ikustera, baina bestela... Herritarrak gehiago hurreratu beharko lirarteke Iturrigorrira.

Beste zaletasunik baduzue?

Ez, pilotan baino ez dugu jokutzen eta pilotari onak izan nahi genuke.

FOTOKIROLA

**Karate Txapelketa jokatu zen zapatuan**

Aretxabaletako Karate Eskolak *Kata* modalitateko txapelketa antolatu zuen zapatuan. Hainbat ume eta gaztetxok hartu zuten parte. Benjaminen mailan irabazlea Dani Gimbert izan zen; alebinen mailan, Odei Vázquez, eta infantil eta gazteen artean, berriz, Alexander Justel. Aste bukaera honetan, bestalde, Arrasateko eta Bergarako 40 karatekiderekin batera, lau aretxabaletar Espejora joango dira: Odei Vázquez, Gorka Pérez de Labeaga, Aitor Manso eta Odilo Vázquez. /M.A.

FOTOKIROLA

**356 mendizale II. Mendi Martxan**

Domekan egin zuen Murruxok II. Mendi Martxa, arrakasta handiarekin egin ere. 356 mendizale batu ziren 07:30ean Felix Inurrategi lorategian. Gehienak aretxabaletarrak eta inguruko herrietakoak ziren, baina Bilbotik edo Oreretatik etorritakoak ere bazeuden. Lehen taldea 11:15ak inguruan itzuli zen herrira, baina gehienek denbora luzeagoa behar izan zuten 28 kilometroko ibilaldia egiteko. /M.A.




Herriko plaza 2/g ARETXABALETA

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33Hirusta
IatetxeaIlargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA**Jauregi
Okindegia**Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

MUNDUTARRAK ARETXABALETAN

BEGOÑA VICENTE

LANGILEA / LEÓN

“Kanpotarra izan arren, aretxabaletarrek oso harrera ona egin zidaten”

AMAGOIA LASAGABASTER

Hamasei urterekin ikusi zuen lehen aldiz Begoña Vicentek Aretxabaleta. Gaztaroan hartutako erabaki batek aldendu zuen jaioterri- tik, Leongo Hurga de Frailes herritik. Ordutik hona, beste bizileku batzuk ere ezagutu izan ditu, baina ez Aretxabaleta modukorik: “Gaztetxo nintzela etorri nintzen, eta kanpotarra izan arren, aretxabaletarrek oso harrera ona egin zidaten hasieratik”. Eta hori horrela dela erakusteko, Begoñak etorri eta handik denbora laburrera Ikurrina legezatu zuteneko festa gogoratu digu: “Leondik etorri eta urte batzuetara, guztiz euskaldunduta nengoen. Ikurrina legezatu zuteneko festa, esaterako, ez dut sekula ahaztuko; oso hunkigarria izan zen; Andra- maixetan ere ez da horrelako festarik inoiz egin”.

Begoñaren esanetan, Aretxabaletara etorritakoan, beste hizkuntza bat ikastea izan zen gogorrena. Hala ere, eta Begoñaren alaba bien laguntzarekin, hori ere ez zen izan gustura bizi izateko oztopo.

“Hamazazpi urtez Nafarroan bizi ostean, berriro ere bueltatu naiz Aretxabaletara”

Aretxabaletara etorri eta gero, Nafarroan ere bizi izan zen Begoña. “Hamazazpi urtez Nafarroako herri baten bizi izan nintzen, baina azkenean, berriro ere Aretxabaletara bueltatu naiz; bigarren aldiz jarri dut herri honetan nire bizilekua”.

Gurasoak Leonen ditu Begoñak, eta haiek bisitatzera joaten da noizean behin jaioterrira; hala ere, ez da luzarorako joaten: “Urtean astebetetz egoten naiz Leonen, baina ez gehiago. Hura ez zait askorik gustatzen. Gurasoak ikusteko izango ez balitz, ez nintzateke sekula Hurga de Frailese- ra bueltatuko; Aretxabale- tan pozik bizi naiz!”.



HURRETIK



Manolo Hernández

Jardiñerue

Oin dala bost urte, ikastaro bat egin ostien, lorazaintza enpresa bat sortu euen Manolok eta lagun batek. Harrezkero, Aretxabaletako lorategixetan ez da lorarik falta izen.

Zure lana afiziñue be bada?
Ez. Gustokue bada be, lana da niretako.
Zein lora da zure gustokue?
Larrosa.
Zein koloretakuek?
Gorri-gorrixek.
Zela beteko zeuke zure etxeko lorategixe?
Nahas-mahas haundi bat egingo neuke, lora asko jarriko nittuke, kolore askotakuek, gaiñera.
Aretxabaletarrok zela zainketan dittugu herriko lorategixek?
Jeneralien, nahiko ondo, baiñe txakur- rrekin sekulako arazuek dittugu. Zela leike hamen inguru dana mendixe izenda, txakurra etxe azpiko lorategire ataratie kaka egittera! Eta gaiñera, jentiek lorak harrapetan dittu lorategixetatik.
Aretxabaletako zein lorategi gustetan jatzu gehixen?
Belorrietako ingurue oso ondo dau ointxe momentuen.
Munduen zihher ze lorategik harrittu zau gehixen?
Donostiako Boulebarrien daguena. Letxugak, kipulak eta bestelako landa- riek nahastu dittue loriek; oso kurio- sue da benetan.
Jardiñero izengo ez bazitze, zertan lan egingo zeuke gustora?
Itsasue asko gustetan jat; hortan, horre- kin lotutako zerbaittetan ibilliko nin- tzake, seguru!
Urtaro bat?
Duda barik, udabarrixe.
Eta janari bat?
Arrozakin egindako edozein.

A.L.

NIREBIDAIAHURA / Julita González

Errusiara / 1986ko irailean

Julita eta Felisa ahizpak orain dela hamasei urte joan ziren Errusiara, Perestroika garaian, hain zuzen, Gorbachov agintean zegoela. Hamabost eguneko egonaldia egin zuten eta tarte horretan, Mosku, orain San Petersburgo den Leningrad eta Kiev hiriak erakutsi zizkieten errusiarrek.

Julitaren esanetan, erakutsi zieten besterik ezin dezakete kontatu eta ordutik hona ere egoera aldatuta egongo dela dio: “Izugarrizko muse- oak, jauregiak, parkeak, kirol instalazioak... erakutsi zizki- guten, baina kalean miseria handia ikusten zen”. Errusia- rrekin zuzenean berba egiteko aukerarik ez zuten izan, hiz- kuntza oztopo handia zen-eta, baina ikusitakoarekin lilura- tuta bueltatu ziren ahizpa biak: “Moskun egin genituen bost egunean gauero joaten ginen Plaza Gorrira. Izugarria da, handia, polita, jendez beteta beti... Kremlin, Leninen Mau- soleoa eta San Basilio eliza ere bertan daude”, dio Julitak. Horrez gain, Moskuko metro- ak ere txundituta utzi zuen; munduko dotoreena zela zioten orduan, eta Julitaren esanetan, arrazoi osoz: geltoki bakoitze- an margolanak, eskulturak... egoten ziren-eta erakusgai.

San Petersburgo edo Lenin- grad gustatu zitzaion bereziki Julitari: “Garai bateko tsarrak bizi izan ziren han, eta agerian zegoen hori, jauregi eta etxe dotoreak zeuden-eta”. Mundu- ko museo onenetakoa ere, tsarren *neguko jauregia* izan- dakoa, hantxe dago. Operara joateko aukera izan zuten, baita zirkora ere, eta txundituta irten ziren bietatik.


Oro har, dena ei zen handia hiru hirietan: izugarri- ko kale zabalak; museo eta jauregi liluragarriak, oso ondo zainduta guztiak; iraultza gogorazteko egindako monu- mentu ikaragarriak... Dena izugarria.



“Plaza Gorria izugarria da, handia, polita, jendez beteta beti...”

“Leningraden tsarren jauregi eta etxe dotoreak zeuden”

MIRARI ALTUBE



Leninen Mausoleora sartzeko jende ilara handiak izaten ziren.

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

Jou Díaz
Harakina
Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Lezama
BIDEO KLUBA
Zure gustoko zinema!
Santa Kurtz 24
ARETXABALETA
943 79 33 95

DOIKALSE
Elektroerosio lanak
Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 14a / 84. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Gaztetxea oraingo asteburuan irekiko dute

AMAGOIA LASAGABASTER

Zaharberitze lanak bukatuta, Eskoriatzako gaztetxeak asteburu honetan irekiko ditu ateak, ofizialki; izan ere, aurrez, proba modura, bi jaiegunez egon zen zabalik, eta Gazte Asanbladako kideen esanetan, bieran oso harrera ona izan zuen gaztetxe berriak.

HUEZiko festan zabaldu zituen lehenengo aldiz ateak Eskoriatzako gaztetxe berriak. Ordurako, hilabete eta erdian egindako konponketa lanak amaitzeaz zeuden. Aste batzuk geroago ere, Feria Egunean, hain justu, giro ederra izan zen gaztetxean. Bertsolariek eszenatokian abestu zuten bitartean, gazteek taberna estreinatuta zuten, hainbat trago hartuta.

Baina gaztetxea, ofizialki, asteburu honetan zabalduko dute. Egubakoitzetik domekara bitartean izango ditu ateak zabalik.

FUNTZIONAMENDUA

Gaztetxearen ardura Eskoriatzako Gazte Asanbladak (EGAS) izango du. Hala ere, oraindik erabakitzeke dago gaztetxearen fun-



AMAGOIA LASAGABASTER

Eskoriatzako gaztetxeak oraingo asteburuan irekiko ditu ateak, ofizialki.

tzionamendua zein izango den: hala nola, giltzak nork izango dituen, taberna noiz izango den irekita, diru kontuak zelan eramango diren, eta abar erabaki

beharko dute. Horretarako, EGA-Sekoek beste gaztetxe batzuk eza-gutu gura dituzte. Baina, aurretik, San Pedroetarako ekintzak gertatzen hasiko dira.

POLITIKA

Vicente Enekotegik omenaldia jaso zuen

Vicente Enekotegiri ongi etorria egin zioten herritarrek joan den bariku iluntzean herriko plazan. Zaparrada handia egin bazuen ere, lagun ugari batu ziren Vicente Enekotegiri ongi etorria egiteko. Dantzari batek agurra egin ondoren, lore-sorta bat eskaini zioten bere lagunek.

APIRILEAN ATXILOTU ZUTEN

Apirilaren 29an atxilotu zuten Vicente Enekotegi, beste 10 euskal herritarrekin batera. Epaile-

ak ETA-EKIN sarearen finantza-ketan parte hartzea leporatu zien. Herriko tabernetako kontuak ere blokeatu zituzten orduan, eta Vicente Enekotegiren enpresamiatu zuen Espainiako poliziak.

60.101 EUROKO BERMEA

Ruiz Polanco epaileak aginduta, Vicente Enekotegi 60.101 euroko bermea ordainduta geratu da aske. Apirilean atxilotutako hamaika lagunetatik, bi aske daude dagoeneko.



Jende ugari bildu zen Enekotegiri ongi etorria emateko

HERRITARREN HITZA / Nerea Zubiete • Kazetaria

Bustita nago, ama

Ama". Zer?" "Esku hau bustita daukat". Egun eguzkitsua dago eta plazan ez dago putzurik. Haurrak harrিতта begiratzen dio eskuari gurpildun aulkiari aurrera egiteko ikera egiten dion bitartean.

"Bustita? Zertan ibili zara ba?" galdetu dio amak aparteko erantzunik ez duela espero. "Ez dakit, baina bustita eta iluna dago".

Amak orduan burua jaso eta begiratu egin dio. Hala da, bai, esku bat nahiko zikina dauka. Ondo aztertzen hasi eta, ezin sinistu edo sinistu nahi ez duela, apurka-apurka bustita

dagoen dena azaltzen hasi da. Lehen-dabizi badirudi aulkiaren gurpila busti dela. Ibiltzeko orduan, gurpilari aurrera eragiteko orduan, txamarra-aren besoa ere busti egin da eta eten gabeko mugimenduan, azkenean txamarra osoa. Dena dago bustita eta zikin xamar. Baina ez da hor amaitzen dena!

"Ama, zerena da usain txar hau? Uuff!"



"Ama, zerena da usain txar hau? Uuff!"

ko modukorik geneukan, handiena sikiera garbitzen hasteko. Ahaleginak, ordea, ez

dira nahikoa izan. Haurra etxera eraman behar izan dute arropa dena aldatzera. Garbigailuan sartu baino lehenago eskuz kendu behar izan diote handiena. Eta gaur egun, gaitz erdi, orokorrean arropak eta bereziki txamarrak oso ondo garbitzen dira labadoran. Istorio hori orain dela bi urte gertatu zen. Orduetik hona, ez dugu aldaketarik sumatu gure herriko "putzuei" dagokienez. Martinek, ordea, orain askoz hobeto ezagutzen du txakurren kakaren zikinkeria eta usaina, jakina, hura gertatu zenean lehenengo aldia zelako, baina zoritxarrez ez da azkena izan.

LABUR

Kanpoko igerilekua eta solariuma bihar zabalduko dituzte

Aste barruan kiroldegiko beheko solairuan egindako garbitasun lanak amaituta, bihar, zapatua, astebetetz itxita egon diren zerbitzuak zabalduko dituzte. Bestalde, udako denboraldia ere bihar hasiko denez, kanpoko igerilekua eta solariuma zabalduko dituzte astelehenetik zapatua, 10:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik. Domeketan, berriz, 10:30etik 14:30era. Barruko igerilekuen ordutegia lehenengo bera da. Eguerdietan ere zabalik egoten da.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaltzeara	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
IJUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK


Eskualde ospitalea (Arrasate) ..	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) ..	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate) ..	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati) ..	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga) ..	943 72 15 15
RENFE (Gasteiz) ..	945 23 20 30
PESA (Arrasate) ..	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate) ..	943 77 10 43
SOS Deiak ..	112

OHARRAK

SAN PEDRO TXIKI 2002
Ekainak 14 (Egubakoitza)
18:00 Txupinazoa.
18:30Buruhandiak.
19:00, Briska Txapelketa.
22:00 Saiheski jana
(txartelak salgai auzoko tabernetan: 10 euro).
22:30 Dantzaldia Maitana taldearekin.

Ekainak 15 (Zapatua)
10:15 Ume jokoak.
12:30 Herri poteoa.
16:00 Mus Txapelketa.
17:00 Areto futbola eta saskibaloia. San Pedro Txiki V. Txapelketa kiroldegian.
23:30 Dantzaldia, Maitana taldearekin.
04:00 DJen emanaldia.


Ekainak 16 (Domeka)
11:30 Umeendako puzgarriak, kart, autoak,...
12:30 Tortilla Lehiaketa.
13:00 Herri poteoa.
16:00, Tute Txapelketa.
18:00 San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako erretiratuendako luncha.
21:00 Jai bukaerako traka.



NIKAZETARI/ Kepa Isasmendik egindako elkarrizketa

I. URIBETXEARRIA/ALMEN KIROL ELKARTEA

“Ahalik eta gazte gehienek kirola egitea nahi dugu”



Aretxabatarra da Iñaki. Hamar urte egin ditu Almen Kirol Elkartearen, azkeneko laurak, Zuzendaritza taldean. Gaztetan egindako kirolak bizitza osorako balio duela pentsatzen du; kirola egiteaz gainera, diziplina, errespetua, eta talde-lana zer diren ere ikasten delako. 25 urte bete ditu Almen Kirol Elkarteak, eta bihar, zapatua, Kirol Jaia egingo dute Almenen.

Zergatik sortu zen Almen KE?

1977an, ikastolako irakasle batzuk eta ikastolan semeak zituzten beste guraso batzuk batu egin ziren, euren semeek kirola praktikatzeko.

Zein helbururekin sortu zen?

Kirol elkarte gehienek helburua kirol maila altuena lortzea da. Guretako, hori garrantzitsua da, baina helburu garrantzitsuago bat daukagu: ahalik eta ume eta gazte gehienek kirola egitea.

1977tik 2002ra egon da kirol aldaketarik?

Elkartea sortu zenean, atletismoa, gizonen futbola, gizonen eta emakumeen eskubaloia eta saskibaloia zeuden. Geroztik, atletismoko taldea, gizonen saskibaloia eta emakumeen eskubaloia galdu egin dira, eta emakumeen futbola sortu da.

Non praktikatzen dira kirol horiek?

Instalazioak ez dira oso onak. Kiroldegia umeltasun eta lur mugimendu arazoak ditu. Hori konponduta, futbol zelai artifizial bat egingo nuke. Futbol zelai hori, gainera, elkartearendako eta ikastolarendako ere abantaila izango litzateke.

Goi mailako kirolari ugari irten dira Almen KEtik?

Andoni Zubizarreta eta Luis Mari López Rekarte Almengo jokalariek izan ziren. Eskubaloian, Bartzelonako Olinpiadetan izan zen Jasone Díaz De Gereñu hemen hasi zen. Saskibaloian, berriz, Bartzelonan entrenatzen ari den Itziar Mallabiabarrenak ere

Almen Kirol Elkartearen jokatu zuen.

Zelan ikusten duzu Almen Kirol Elkartearen etorkizuna?

Ez da ona: gero eta ume gutxiago daude, eta hori arazo larria da; gainera, oraingo gurasoen eta umeen balioak aldatu egin dira; gero eta boluntario gutxiago daude; entrenatzaileak eta delegatuak aurkitzeko garaian arazoak izaten ditugu. Gaur egun, ia inork ez du gura denbora libre horrelako gauzetan ematerik.

Aurten 25 urte beteko dituzuela-eta, egin duzue ekintza berezirik?

Gabonetan, eskubaloia eta saskibaloia txapelketak antolatu genituen. Futbol txapelketan Pesak izeneko talde frantsesak hartu zuen parte. Martxoan, berriz, Mendibil eta Bacomat Arabaren arteko saskibaloia partida antolatu genuen. Eskoriatzako azokan hartu dugu parte, arrakasta handiarekin, gainera. Argazki zaharrak eta urte hauetan guztietan irabazitako kopak erakutsi genituen.

25. urtebetetzea ospatzeko eta denbaldia amaitzeko jaia bihar izango da.

Duela lau urte hasi ginen Kirol Jaia egiten, eta espero dugu datozen urteotan ere egitea. Bihar, zapatua, 10:30ean, Almengo ikasleendako Olinpiada Txikia antolatu dugu. Puzgarriak, lantegiak eta auto telegidatuen erakustaldia izango dira; 12:00etan, trialsin erakustaldia izango da: Alberto Gómez munduko txapeldunordea eta Iker Lezeta Euskadiko txapelduna izango dira. Trofeo bana-ketaren ondoren, bazkaria izango da.

LABUR

‘Eskoitzarrok ligoteau larri, euskeria sarri eta juergia ikaragarri’ esaldia irabazle

Aurtengo San Pedro jaietarako Esaldi Lehiaketan 50 lagunek hartu dute parte, guztira, 18 taldek. Denetara, 53 esaldi aurkeztu dituzte. *Eskoitzarrok ligoteau larri, euskeria sarri eta juergia ikaragarri* esaldiak irabazi du lehenengo saria. San Pedroetan talde osoarendako afaria izango

dute irabazleek, eta euren esaldia, beste esaldi batzuekin batera, jaietako pegatinetan inprimatuko dute. Beste esaldi hauek ere aukeratu dituzte: *Jaixetan herrixe Animetan, Txin-txin! Zurekin pitxin eta Ahaztuta daukatzula? Ingou elkarrekin!* (San Pedruetan be euskaraz).

Eskoriatzako koadrila batek Bordeleko Forexpo azoka bisitatu du

Gipuzkoatik autobus bi joan ziren joan den barikuan Bordelera, Forexpo azoka ikustera. Debagoietik joandako lagunek ia autobus osoa bete zuten. Nekazaritza eta Ingurumen diputatu Jon Mikel Murua izan zuten Bordelen lagun. Forexpo azokan basoekin eta basoen ustiapena-

rekin zerikusia duen edozer gauza aurki daiteke: era guztietako zuhaitzak eta landareak, basoak garbitzeko edo lantzeko tresneria, eta beste. Bordeletik gertu dagoen baso baten egin zuten aurtengo azoka. Basoekin lotutako erakustaldiak egin zituzten erakusleek Forexpo azokan.

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia

Aingeruardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA

MARI
TERE

ILEAPAINDEGIA

Dorleta auzoa,
15. poligonoa, 6-ekz.
ESKORIATZA
943 71 40 19

Santa
Ana
GOZOTEGIA



Santa Ana 7
ESKORIATZA
Tel. 943 71 52 36

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure
Zerbitzura

GUREL, zalantzak argitu eta udalekuak prestatzen

AINZANE GARDOKI

GURELek, Goienaren gainean zituen zalantza batzuk argitzeko asmoz, batzarra egin zuen joan den barikuan. Bide batez, uztailean izango diren udalekuak antolatzeko pausoak eman zituen batzarrean. Egunak eta egitaraua zehaztuta, begiraleak behar dira.

Guraso Elkarreak Getariara egin zuen irteeran zalantza batzuk sortu ziren Goiena kooperatiba-

ren gainean; Gatzagako elkarteak Goienan duen parte hartze zuzena zein den eta egin beharreko lanak zeintzuk diren argitzeko, batzarra deitzea erabaki zuen elkarteak. Goiena kooperatibaren bi organotan, behintzat - Errektore Kontseiluan eta Erabiltzaileen Kontseiluan-, parte hartze zuzena duela gogoratu zien Errektore Kontseiluan dabilen GURELeko ordezkariak. Eta bi kontseiluotan lanean jarraituko duela berretsi zuen GUREL elkarteak. Hartutako erabakian arte-

an, aurrerantzean egingo dituzten batzarren aktak jasotzea ere onartu zuten, aho batez.

UDALEKUAK PRESTATZEN

GURELek uztaileko udalekuak prestatzeko lehen urratsak eman zituen batzarrean. Astean ere joratu dute gurasoek gaia: programa eta egunak zehaztuta, begiraleak behar dira. Euskalduna izatea, autoa edukitzea eta umeen aisialdian eskarmentua izatea eskatzen dute. Interesatuok dei ezazue 943 71 54 25 zenbakira.



A.G.


Uztailearen bigarren eta hirugarren astean egingo dira udalekuak



Ikasleen eta gurasoen txangoa

Joan den maiatzaren 25ean, Luis Ezeiza ikastetxeko Guraso Elkarreak antolatuta, eskolako ikasleek eta euren gurasoek irteera egin zuten Santanderko Santillana del Mar herrira. Eskoriatzako lagunekin batera, Gatzagako hamaika lagun ere izan ziren: sei ume eta bost aita-ama. Denera, 110 guraso eta ikasle izan ziren. Santillana del Mar herriko zoologikoa eta Altamirako Neokoba ikusi zituzten, besteak beste. Atzo (eguna), berriz, herriko ikasleek ikasturte amaierako irteera egin zuten; Gasteizeko Txikiparken eta Izarran izan ziren. /A.G.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeillaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

COMPOSTELA Taberna

Olagarro
espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

FAGOR



ELEKTRATRESNA TXIKIKO NEGOZIOA

Aingeruguarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



ATE IRRISTAGARRIAK
HORMAN SARTUTA:
LEKU GUZTIA
APROBEATXATZEKO



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa




AZKARATE
AROTZEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



- Aitzorrotz elektronika
- Alboka gazte moda
- Angelines autozerbitzua
- Aretxabaleta iturgintza
- Asensio jantzi denda
- Begiondo optika
- Errasti kioskoa
- Errekabarren fruta denda
- Etxabe harategia
- Farma bizi parafarmazia
- Gemes edertze aretoa
- Gertu janari prestatuak
- Haurrak umeen moda
- Herrasti akeita etxea
- Ibarra estankoa
- Iber loteria
- Imanol janari denda
- Iriarte umeen denda
- Irudi ileapaindegia
- Jauregi okindegia
- Jon harategia
- Josu harategia
- L-10 ileapaindegia
- Larrad ileapaindegia
- Lasai masajeak
- Leibar arraindegia
- Leintz drogeria
- Leniz liburudenda
- Mari Karmen oinetakoak
- Maritxu mertzeria
- Martin erlojudenda
- Miren Zuriñe bitxitegia
- Nerian loradenda
- Txilarra dietetika
- Xume oihal denda
- Zainduz osasuna/fitnessa
- Zare artegintza
- Zubia oinetakoak

UDABERRIAK EMAN DITU SARIAK!



150 euroko saria:

12409 zkia. *Tirso*

60 euroko sariak:

04760 zkia. *Zubia*

10440 zkia. *Iriarte*

05161 zkia. *Kixkur*

12917 zkia. *Iosu*

11018 zkia. *Txilarra*

08770 zkia. *Aitzorrotz*

09989 zkia. *Iber*

09159 zkia. *Lasai*



Zorionak denoi Aretxarteren izenean

Sariak jasotzeko azken eguna uztailaren 5a.
Sariak jasotzeko Aretxarteren edozein dndetata jo dezakezu.



Ezkontzetarako

Makillaje onena zuretzat



ESTETIKA

- Betileen permanentea eta tindatzea
- Masajea
- Aurpegiko azala garbitzea
- Manikura
- Depolazioa argizari hotzarekin nahiz beroarekin
- Salariuma
- Ezkontzetarako makillajea



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79
ARETXAXBALETA

ILEAPAINDEGIA

- Zure orrazkera estiloa aurkituko dugu: ile motza, permanentea...
- Luzapenak, ile naturalak %100
- Ezkontzetarako orrazkera bereziak
- Kolore aukera zabala
- Ilearn osasunerako hainbat produktu